

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**45. zenbakia****Data 2008-03-04****6641 orria****4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA****ULIAZPI FUNDAZIOA****Zaintzaile lanpostuak aldibaterako betetzeko zerbitzuak eskeintzeko lan poltsarako deialdi publikoa.****ULIAZPI FUNDAZIOA***Iragarkia*

Gipuzkoako Foru Aldundiko «Uliazpi Fundazioa» Erakunde Autonomoko Gobernu Batzordeak, gaurko egunez egindako bilkuran honako erabakia hartu di, eta horren azalpen-zatiak horela dio:

ERABAKIA

Lehena. Erakunde honek zentroak dituen Gipuzkoako Herrialde Historikoko herrietan (Bergara, Donostia, Hondarribia eta Zizurkil) eta etorkizunean izan ditzakeenetan adimen-urritasuna eta laguntza-premia orokorrak dituzten pertsonen arreta egiteko Zaintzailearen lanpostuetan aldi baterako izaeraz zerbitzuak eskaini beharrari erantzuteko Lan Poltsa hori handitzeko edo zerrendak irekitzeko deialdi publikoa egitea.

Bigarrena. Aipatutako Lan Poltsa handitzeko deialdia arautuko duten oinarriak, Erabaki honen Eranskin gisa doazenak, onestea».

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Interesatuek erabaki horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Edonola ere, partikularrek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomo «Uliazpi Fundazioko» Lehendakariaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu horretan ezingo da administrazioaren aurkako errekurtsorik jarri harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz erabaki arte edo presuntziozko ezespena erabaki arte. Halere, horrek guztiak ez du esan nahi egoki irizitako beste edozein errekurtso jarri ezin daitekeenik.

Hori guztia argitaratu egingo da jendeak jakin dezan.

Donostia, 2008ko otsailaren 1a.—Arantza Aguiriano Beitia, Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomo «Uliazpi Fundazioko» Gerentea.

(9752) (2381)

Zaintzailearen lanpostuetan sortzen diren zerbitzu-beharrei aldi baterako izaeraz erantzuteko lan-poltsa handitu eta zerrendak irekitzeko prozesuaren deialdi publikoa.

OINARRI ARAUTZAILEAK**1. Deialdiaren helburua.**

1.1. «Uliazpi Fundazioa» Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakunde Autonomoak (aurrerantzean Uliazpi) zentroak dituen Gipuzkoako Herrialde Historikoko herrietan (egun zentroak ditu Bergaran, Donostian, Hondarribian eta Zizurkil) adimen-urritasuna eta laguntza-premia orokorrak dituzten pertsonen (aurrerantzean AULPOP) arreta egiteko Zaintzailearen lanpostuetan sortzen diren zerbitzu-beharrei aldi baterako izaeraz erantzuteko Lan Poltsa handitzeko hautapen-prozesu baterako deialdia egitea da Oinarri hauen xedea.

1.2. Halaber, zerrendaren hurrenkera poltsaren kudeaketa-irizpideen arabera eta merezimenduen eta gaitasun profesionalaren ebaluazioaren arabera eguneratzeko balioko du deialdi honek, 7. Oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz. Horregatik, beharrezkoa da Uliazpin lan egin izan dutenek, hau da, Lan Poltsaren barruan daudenek Oinarri hauetan ezarritakoaren arabera aurkeztea beren eskabidea, zerrendaren hurrenkera dagokion tokia erdiets dezaten.

2. Lanpostuaren eginkizunak.

— Adimen urritasuna eta laguntza-premia orokorrak dituen pertsona (AULPOP) artatu eta zaintzea, pertsona horri arreta eta heziketa eskaintzeko beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak egitea, jardueren ordena eta exekuzioa zainduz eta pertsona horrek dituen premietan lagunduz eguneko nahiz gaueko jarduera guztietan, betiere une bakoitzean erabakitako jarraibideak kontuan hartuta.

— Bere zaintzapean dauden AULPOPei laguntzea irteera edo txangoak egiten dituztenean, jolasetan eta, orokorrean, aisialdiko denboran.

— Erabiltzaile bakoitzaren hezkuntza-programaren plangintza, exekuzio eta ebaluazioan lagundu eta parte hartzea adierazten diren orientabideei jarraiki, eta erabiltzailearen hezkuntza-prozesuak aurreikusitako hezkuntza-jarduerak egitea profesional eskudunaren ikuskaritzapean.

— Aipatutako jardueraz gain, bere nagusiak agindutako funtzioak beteko ditu, duten lanpostuaren arabera.

3. Hautagaien baldintzak.

3.1. Lan Poltsaren barruan sartzeko ezinbesteko baldintza izango dira ondoren aipatzen direnak, eta eskabidea aurkezten den egunean bete beharko dira, g) apartatua izan ezik, kontratatzen den unean bete beharko baita hori:

a) Europar Batasuneko partaide diren Estaturen bateko nazionalitatea izatea edo Europar Batasunak egin eta Espainiako Estatuak berretsi dituen Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio librea aplikagarria den Estatuetakoa izatea.

Era berean Europar Batasuneko partaide diren beste Estatuetak nazionalen ezkontideak aurkeztu ahal izango dira, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, eta baita haien ondorengoak eta haien ezkontideak ere, betiere horiek ere zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak ez badira edo adin hori gaindituta izan arren horien kargura bizi ez badira.

Halaber, Europar Batasuneko partaide diren Estatuetak nazionalen baldintza berberetan aurkeztu ahal izango dira atzerriarrak ere, baldin eta arestian adierazitako egoeretan egon ez eta Espainiako Estatuak biztanle badira.

b) 16 urte beteak izan eta nahitaezko erretirorako gehieneko adinetik gora ez izan.

c) Honako tituluren baten jabe izan edo erdiesteko eskubideak ordainduta eduki:

— Lanbide Heziketa 1, Osasun Arloa.

— Goi Batxilergoa edo titulu akademiko ofizial baliokidea.

Atzerriko tituluen kasuan, horien homologazioa ziurtatzen duen egiaztagiria izan beharko da.

d) B klaseko gida-baimena eduki, Gidarien Arautegi Orokorra onesten duen maiatzaren 30eko 772/1997 E.D.aren bat etorritik, edo aurreko araudiaren arabera emandako horren baliokidea eduki.

e) Lanpostuak berezkoak dituen eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala eduki. Hori bere garaian egiaztatu beharko da, Batzordeak onartutako hautagaiei bakarrik egingo zaizkien ariketa eta azterketen ondoren, Uliazpi Fundazioak hori egitea erabakitzen duen zerbitzuetan. Minusbaliotasuna dutenak gainerako hautagaien baldintza berdinetan onartuko dira eragozpen hori ez dagoen kasuetan.

f) Baztertua ez izatea diziplina-espedita baten bidez edozein Herri Administrazioetako edo Autonomia Erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzuak betetzeko, eta ebazpen judizial batek enplegu edo kargu publikoetarako erabat edo bereziki gaitasungabetuta ez egotea, ezta burutzen zituenak bezalako eginkizunak egiteko ere, edota baztertu edo gaitasungabetuko lukeen gainerakoetarako.

Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, gaitasungabetuta edo pareko egoera batean ez egotea, eta diziplinazko zehapen baten edo beste pareko baten pean ez egotea, bere Estatuan baldintza berdinetan enplegu publikoan sartu ahal izatea eragotziko badio.

g) Kontratatzan baldin bada, bateraezintasunezko inolako auzirik ez izatea, Administrazio Publikoetan lan egiten duen Pertsonalaren Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoari jarraiki, betiere aipatu lege-arau horretako aukera-eskubidea erabiltzearen kaltetan izan gabe, lehendik lanpostu publikoan edo bateraezina den jarduera pribatuan ari direnentzat.

h) Halaber, Lanpostuen Zerrendan lanpostu horretarako ezartzen diren gainerako baldintzak ere bete daitezela eskatuko da.

3.2. Bide batez, aipatutako betebeharrak horiez gain, gaitasun tekniko-profesionalerako ikastaro bat gainditu beharko da. Ikastaro honen ezaugarriak, baita baliokidetzearak edo hori egin behar izatetik salbu egotearenak ere, 7. Oinarrian zehazten dira.

4. Eskabideak.

4.1. Uliazpin dagoen Lan Poltsako zerrendetan izena eman edo sartzeko aukera beti irekita egongo da.

Eskabideak 7. Oinarrian ezarritako maiztasunarekin eta baremoarekin bat etorritik ebaluatuko dira.

Nolanahi ere, eta 7. Oinarrian ezarritako maiztasunaren kaltetan izan gabe, lehenik eta deialdi honen xede gisa, hogeitau egun naturaleko gehieneko epean aurkezten diren eskabide guztiak balioetsiko dira, Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lan Poltsan onartua izateko aurkezten diren eskabideak, bai epe jakin honetan aurkezten direnak eta bai gainerakoak ere, horretarako prestatutako eremuan (oinarri hauen eranskin gisa doa, eta Interneten www.uliazpi.net helbidean eskura daiteke) Uliazpiko Lehendakariari zuzenduko zaizkio, Oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 3. Oinarriaren 3.1 puntuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute hautagaiek, betiere eskariak aurkezteko epearen amaiera-eguna kontuan hartuz.

b) Minusbaliotasuna izan eta proba edo ikastaro horietakoren bat egiteko behar den denbora edo behar diren baliabideak egokitu daitezela nahi dutenek eskarian bertan egin beharko dute eskaera hori.

c) Era berean, hautagai guztiak, baita Poltsan sartuta daudenek ere, horretarako ezarritako inprimakian (eskabide-eredua eskura daitekeen tokietan eskuratu daiteke hori ere, eta oinarri hauen eranskin gisa doa), balioetsi beharreko merezimenduei buruzko datuak agertarazi beharko dituzte. Halaber, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dira 8. Oinarrian adierazten den moduan. Eskabidean zehazten ez diren edo behar bezala egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira balioespenean kontuan hartuko.

d) Hautagaiek «herria aukeratzeko inprimakian» (hori ere eskabidearekin batera doa eranskin gisa eta hura eskuratzen den tokietan eskura daiteke, hots, www.uliazpi.net helbidean), zein herritan aurkezten diren adierazi beharko dute, hau da,

zein herritan nahi dituzten eskaini beren zerbitzuak. Herri batean baino gehiagotan aurkezten badira, lehenetsun-hurrenkera adierazi beharko dute. Uliazpik beretzat gordetzen du zentroak dituen herri guztien artean hautagaiak proportzionalki banatzeko eskubidea –horien tamaina eta premien arabera–, lortutako puntuazioak eta aukeratutako herriaren lehenetsun-hurrenkera kontuan izanik, herri edo zentro batzuetan eta besteetan giza baliabideen soberakinik edo hutsunerik gerta ez dadin. Herri bakarra aukeratuko balitz, besteetan lan egiteko asmorik ez dagoela ulertuko da, eta herri horretan giza baliabideak soberan baleude baztertuta gera liteke.

Uliazpik gaur egun honako herri edo udalerrri hauetan ditu Zentroak, 1. Oinarrian adierazi den moduan:

- Bergara.
- Donostia.
- Zizurkil.
- Hondarribia.

e) Berariaz adierazi beharko dute euskararen ariketa egin nahi duten ala ez, hots 1 hizkuntz eskakizunari dagokiona, edo 7. Oinarrian xedatutakoarekin bat etorritik hori egin behar izatetik salbuetsita dauden.

f) Eskabideak, merezimenduen inprimakiarekin eta herria aukeratzeko inprimakiarekin batera behar bezala beteta eta N.A.N.aren fotokopiarekin eta 3. Oinarrian prozesu honetan parte hartzeko zehazten diren baldintzen egiaztagiriekin aurkeztuko dira, eta halaber, alegatutako merezimenduen egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira –8. Oinarrian adierazten da zein diren agiri horiek–, honako toki hauetakoren batean:

- Uliazpiren Erregistroan, Oihenart kaleko 2 zenbakian, P.K. 20018, Donostia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian, Gipuzkoa Plaza, z/g, P.K. 20004, Donostia.

— Foru aldundiarekin hitzarmena duten Gipuzkoako edozein Udaletako Erregistro eta entitateetan: Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Aretxabaleta, Baliarrain, Deba, Eibar, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Hernialde, Hondarribia, Idiazabal, Irun, Irura, Larraul, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Mendaro, Olaberria, Orendain, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zumaia, Zumarraga eta Deba Goienako Mankomunitatea.

— Herri Administrazioen Araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 lekeko 38.4 artikulua aurreikusitako lekuetan, eta zehazki honako hauetan:

— Estatuko eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioetako organoen Erregistroetan;

— Espainiako Estatuko ordezkari diplomatikoetan edo kontsul-bulegoetan (atzerrian), Euskal Autonomia erkidegoko Erregistroetan edo beste edozein Autonomia Erkidegotan, eta halaber, estatuko Administrazioaren Erregistroetan.

— Posta Bulegoetan aurkezten direnean, arestian aipatutako 38.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, gutun-azal irekian aurkeztuko dira, Correoseko funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien gutuna ziurtatu baino lehen, eskariak aurkezteko epearen barruan. Kasu horretan bakarrik ulertuko da eskaerak postetxera eraman ziren egun berean izan zutela sarrera Uliazpiko Erregistroan. eskabidea da, gutun-azalarekin batera, ziurtatu beharrekoa.

— Araudian aurreikusitako gainontzeko edozein eratan.

Beren eskabidea aurreko apartatuan adierazitako tokiren batean aurkezten dutenek jatorrizkoak, beren fotokopiarekin batera, edo behar bezala konpultsatutako kopia aurkeztu beharko dituzte

4.2. Agiriak erkatzea:

Beren eskabideak Uliazpiren Erregistroan aurkezten dituztenek, izena emateko eskatu diren baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta horien kopia aurkeztu beharko dituzte, eta horiek Uliazpi Fundazioko Erregistroan aurkezten diren une berean egingo da erkaketa, eskariarekin batera joango den N.A.N.aren kopiarena izan ezik.

Jatorrizkoaren eta bere kopiaren erkaketa –ez dira onartuko beren fotokopiarekin batera aurkezten ez diren agiriak, alegia, ez da fotokopiarik egingo– Uliazpin bertan egingo da, eta Lan Poltsan sartzea eskatzeko helburu bakarrarekin.

Hori guztia fede-emaile publiko eskudun batek behar bezala konpultsatutako kopia aurkeztu ahal izatearen kaltetan izan gabe.

4.3. 8. Oinarrian zehazten da eskabidearekin batera zer dokumentu aurkeztu beharko den hautapen-prozesuan parte hartzeko baldintzak agirien bidez egiaztatzearen, eta halaber, zein diren balioetsi beharreko merezimenduak, gaitasun tekniko-profesionalaren ariketatik salbuetsita geratzeko baldintzak eta euskara-ezagupenak balioesteko irizpideak.

4.4. Hautagaien merezimenduak, baita gaitasun-ariketa edo ikastaroa ere –hori egin behar izatetik salbuetsita egon ezean, erabat edo zati batean–, 7. Oinarrian ezarritako irizpideekin bat etorritik balioetsiko dira.

5. Hautagaiak onartzea.

5.1. Eskabideak aurkezteko HOGEI eguneko epea amaitu ondoren, Uliazpiko Lehendakariak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak onetsi eta argitaratuko ditu Uliazpiren Zerbitzu Zentralen Iragarki Taulan (Oihenart kalea, 2 zk. behe, 20018 Donostia) eta 4. Oinarrian adierazitako bere Zentroetan, baita Uliazpiren web gunean ere (www.uliazpi.net).

5.2. Aurreko apartatuan adierazitako lehen argitalpen horren kaltetan izan gabe, hainbestean behin urte bakoitzean eskabideak aurkeztu dituzten eta onartuak izan diren hautagaien zerrendak argitaratuko dira; zerrenda horiek Uliazpiren Zerbitzu Zentralen Iragarki Taulan argitaratuko dira (Oihenart kalea, 2 zk. behe, 20018 Donostia) eta 4. Oinarrian adierazitako bere Zentroetan, baita Uliazpiren web gunean ere (www.uliazpi.net).

5.3. Kasu batean nahiz bestean, zerrenda horretan ageri ez diren hautagaiak 10 laneguneko epea izango dute, zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Uliazpiren Zerbitzu Zentralen Iragarki Taulan eta Uliazpiren web gunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, zerrendetan ez sartzea eragin duten akatsak edo hutsak zuzentzeko, edo horien aurka erreklamazioak aurkezteko.

5.4. Kasu batean nahiz bestean, behin-behineko zerrenda horiek automatikoki behin betikotzat hartuko dira, inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada. Erreklamaziorik egonez gero, berriz, horiek onartu edo baztertu egingo dira, hala badagokie, behin betiko zerrenda onartzeko emango den beste ebazpen batean, eta zerrenda horiek, onartzen baldin badira, aurrekoak bezala argitaratuko dira.

6. Balioespen Batzordea.

Balioespen Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

— Uliazpiko Gerentea.

Bokalak:

— Uliazpiko Giza Baliabideetako Arduraduna, Lehendakaria ez dagoenean haren lekua betez.

— Uliazpiko Koordinatzaile Psikopedagogikoa, titular gisa, eta Psikopedagogia Saileko Teknikari bat, ordezkotza gisa.

— Uliazpi Zentroko bi Arduradun, titular gisa, eta beste bi, ordezkotza gisa.

— Psikopedagogia Saileko bi Unitate Buru edo Teknikari, titular gisa, eta beste bi, ordezkotza gisa.

Idazkaria:

— Zerbitzu Zentralei atxikitako langile bat, titular gisa, eta beste bat, ordezkotza gisa, hitz egiteko bai baino botoa emateko eskubiderik gabe.

Euskararen ezagupenak balioesteko helburuarekin bakarrik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako langile publiko bat ere izango da Batzordeko kide.

Batzordeak, komenigarri iruditzen zaionean, bertako kideekin batera jardungo duten aholkulari espezialisten laguntza eskatu ahal izango du.

Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat gertatuz gero, Batzordeko kideek, edota horien ordezkotza, uko egingo diote horretan esku hartzeari, eta Uliazpiko Gerenteari jakinaraziko diote.

Batzordeko kide guztiek, Idazkariak izan ezik, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Batzordearen erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira eta berdinketa gertatuz gero, Lehendakari-lanean ari denaren edo, titularra bertan ez baldin badago, haren ordezkotza diharduenaren botoak erabakiko du.

Kargua bete gabe badago, bertan ez badago, gaixo badago edo beste edozein legezko arrazoi gertatuz gero, adin handieneko bokalak ordezkotza du Lehendakaria edota hura ordezkotza duena. Aipatutako arrazoi horienatik Idazkaria ordezkotza behar izanez gero, Batzordeak gehiengoz erabakitako beste edozein kidek beteko du haren lekua.

Batzordea ezin izango da osatu, eta ezingo du jardun, Lehendakaria edo, hura ez dagoenean, haren lekua bete dezakeen Bokala, Idazkaria eta bertako kideen erdiak gutxienez bertan ez badaude.

Batzordeak autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren legezotasuna zainduko du eta horren objektibotasuna bermatzeko ardura izango du. Halaber, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauek aplikatzen sortzen diren zalantza guztiak ebatziko ditu eta prozesuaren garapenean dena ongi burutu dadin beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, bertan aurreikusi ez diren kasuetan hartu beharreko irizpideak finkatuz.

Baldin eta, prozesuko edozein unetan, Batzordeak jakingo balu badela hautagaiaren bat deialdi honetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duena, interesatuari entzun ondoren, hura baztertea proposatu beharko dio organo eskudunari, eta hautagaiak eskarian adierazitako zehaztasun-erakundeak edo faltsukeriak jakinarazi beharko dizkio.

Batzordeko kideak Uliazpi Fundazioko Lehendakariak izendatuko ditu, eta izendapen hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Uliazpiren Zerbitzu Zentraletako iragarki-taulan argitaratuko da.

Jakinarazpen eta gainontzeko gorabeheretarako Batzordearen helbidea honakoa izango da: Uliazpiren Zerbitzu Zentralak, Oihenart kalea, 2 zk. behe, 20018 Donostia.

7. Merezimenduak eta gaitasuna balioestea eta egiaztatzea.

Arestian adierazitako hogeit hamar eguneko epe horretan aurkezten diren eskabideen lehen balioespena edozein izanik ere, edo oinarri honetan aipatzen den ikastaroa edo horri dagozkion praktika akademikoak amaitzen direnean, Uliazpiko organo eskudunak finkatzen duen maiztasunarekin, aurkeztu diren eta 3. Oinarrian deskribatutako baldintzak betetzen dituzten eskabideak ebaluatuko ditu Batzordeak, jarraian azalduko den baremoarekin bat etorriz. Bide batez, eta finkatzen den maiztasunarekin, egindako ebaluazioak berrikusi egingo dira.

1. Merezimenduen eta gaitasunen printzipioak bermatzeari begira, merezimenduak balioetsi eta jarraian deskribatzen diren ariketak burutuko dira:

Lehen. Onartutako hautagai guztiek, baita Poltsa honen barruan dauden ere, eskabidearekin batera, «curriculum vitae» bat aurkeztu beharko dute dagokion «merezimenduen inprimakian» –eskabidea bezalaxe, 4. Oinarrian adierazitako tokietan eskuratu ahal izango da–, bertan aletatutakoa frogatzen duten ziurtagiriek batera.

Curriculumaren balioespena gehienez ere 34 punturen gainean egingo da, jarraian zehazten den baremoarekin bat

etorri.

a) 2. Oinarrian zehaztutako eginkizunetan Esperientzia Profesionala frogatu beharko da erakunde publiko nahiz pribatuetan, betiere Uliazpin artatzen diren pertsonen antzeko ezaugarriak dituztenei arreta egitea bada erakunde horien xedea. 0,017621 puntu emango dira lan egindako egun bakoitzeko, edo egun-zati bakoitzeko, eta gehienez ere 24 puntu lortu ahal izango dira.

b) «Elikagaien manipulazialearen» agiria edo titulua: 1 puntu.

c) Osasuna, gizarte-osasuna, psikologia, pedagogia edo gizarte arloko heziketa osagarria eta izaera ofizialeko titulazio akademikoak edukitzea, lanpostura aurkezteko beharrezkoak direnak alde batera utziz (merezimendu gisa alegatutako goragokoren bat lortzeko beharrezko titulazioak ez dira kontuan hartuko). Gehienez 9 puntu emango zaie, ondorengo baremoaren arabera:

— 15 ordu arteko iraupena duten ikastaroak: 0,3 puntu.

— 15 ordu baino gehiagoko ikastaroak eta gehienez ere 35 ordu bitartekoak: 0,45 puntu.

— 35 ordu baino gehiagoko ikastaroak eta gehienez ere 55 ordu bitartekoak: 0,6 puntu.

— 55 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 0,75 puntu.

— Bigarren mailako Lanbide Heziketako Titulua edo Goi Mailako Heziketa Ziklokoa: 1,5 puntu.

— Lehen mailako Lanbide Heziketako Titulua edo Maila Ertaineko Heziketa Ziklokoa: 1,25 puntu

— Diplomatu titulua: 1,75 puntu.

— Lizentziatu titulua: 2 puntu.

— Bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua, «gutxitu psikikoen hezitzailea» espezialitatean. 3 puntu.

Bigarrena. Gaitasun tekniko-profesionalaren ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat. 3. Oinarrian eskatutako baldintzak betetzeagatik prozesuan aldeaz aurretik onartuak izan diren eta beren curriculum vitaeren balioespenean puntuaziorik handiena lortu duten berrogei hautagaiak egingo dute jarraian deskribatzen den ariketa hau. Aipatutako ikastaro horren ondorengo deialdietan gainerako hautagaiak parte hartuko lukete, edo honetan bertan, norbaitek uko egingo balio, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera. Hori guztia, oinarri honen 2. eta 3. apartatuatan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

«AULPOP Zaintzaileari» dagokion gaitasun edo heziketa ikastaroa gainditu beharko da ariketa hori gainditzeko, izaera teoriko-praktikoa izanik (klase teorikoak 35 ordu izango dira eta klase praktikokoak 100 ordu). Ariketa praktikoko hauek, Batzordeak egoki ikusiko balu, hautagai bakoitzak gaitasun edo heziketa ikastaro horretan lortutako ezagupenen edo egindako ikasketen aplikazioa izango dira, egoera errealean eta behar bezalako gaitasuna duen pertsonalaren aurrean. Ariketa hau gainditzeko beharrezkoa izango da onartutzat jotzea, eta baztertuta geldituko dira ariketa hori gainditzeko ez duten hautagaiak. Aldi berean, ariketa honen alderdi praktikoa gehienez ere 58 punturen gainean balioetsiko da, dagokion ebaluazio-galdetegiarekin bat etorri.

Uliazpiko Zaintzailearen Lan Poltsaren barruan sartu ahal izateko, beharrezkoa izango da, horrenbestez, arestian adierazitako gaitasun tekniko-profesionalaren Ariketa hori egin eta gainditzea, Oinarri honen 2. eta 3. puntuetan adierazitakoaren kaltetan izan gabe. Gaitasun-ariketa horretan arestian aipatutako ariketa praktikokoak eta/edo ikastaroa egin beharko dira, eta printzipioz, urtean behin egingo da eta ikastaro bakoitzeko plaza kopurua, lehen ere aipatu den moduan, berrogei lagunekoak izango da, Uliazpiko organo eskudunak, dela maiztasuna, dela plaza kopurua, edo dela biak, aldatu ezean.

Berrogei plaza horien banaketa Uliazpiko zentroek dituzten premien proportzionala izango da (esate baterako: Norbaitek, bere zerbitzuak eskaintzeko Donostia aukeratu baldin bada herri bezala eta 18. tokian geratu baldin bada, ez du ikastaro horretan lekurik izango –gerta daitekeelako Donostiarako 15 plaza bakarrik egotea–, baina bai ordea, bigarren aukera bezala hautatu duen herrirako 10 plaza baldin badaude eta herri horretako «zerrendan», adibide bat jartzearen, zortzigarren tokian geratu bada. Hau da, sailkapenak herrien arabera osatuko dira, eta hautagai bat zerrenda horietako batean baino gehiagotan egon liteke –baita denetan ere, horrela aukeratu baldin bada–; era horretan, puntuazioari eta prestutasunari ematen zaio lehentasuna).

2. 2. ariketa osorik egin behar izatetik salbuetsita geratuko dira, hau da, ez dute aurreko apartatuan deskribatutako ez ariketa teorikoa eta ez praktikoa ere egin beharrik izango, eta Lan Poltsaren barruan sartuko dira honakoak:

a) Uliazpiko Zaintzaile gisa esperientzia profesionala dutenak

b) Uliazpin egin dituzten ikasketa akademiko ofizialei dagozkien praktika akademikoak egin dituztenak edo egiten ari direnak (ikasketa horiek nolabait ere adimen-urritasunaren eremuarekin loturik baldin badaude).

c) Nolanahi ere, 2. ariketa egin behar izatetik erabat salbuetsita geratzeko –teorikoa eta praktikoa– beharrezkoa izango da egindako praktika akademiko horien lan-arlo nagusia era guztietako laguntzak eskaintzeko ezagupenak izatea: «auto-zainketak», aisialdiko jarduerak, irakaskuntzakoak, Praktika horien ardatza «Auto-zainketak» izan ez bada edo horri buruzko praktikarik egin ez badute, ariketa horren alderdi praktikoa %35 egin beharko dute (35 ordu).

Gaitasun tekniko-profesionalaren ariketa balioesteko 1 apartatuaren 2. ariketan aipatzen den galdetegia, kolektibo hauetako pertsonen ariketa honi dagokion puntuazioa emateko erabiltzen den berbera izango da.

3. 2. ariketaren alderdi teorikoa egin behar izatetik salbuetsita geratuko dira, Batzordearen iritziz, adimen-urritasunaren eremuarekin nolabait ere loturik dauden ikasketak egin edo prestakuntza bereziren bat jaso duten hautagaiak, alderdi teorikoa 35 ordu horiek baliozkotzeko aski baldin badira.

4. Hirugarren ariketa bat egingo da, borondatezkoa eta ez-baztertzaila, 1. hizkuntz eskakizunari dagozkion euskara-ezagupenak egiaztatzeko, horixe baita «Zaintzailearen» lanpostuak izendatuta duena.

Epaimahaiak erabakiko du ariketa hori hautapen-prozesuaren barruan zer unetan egingo den.

Eskabidea eta merezimenduen alegazioa aurkezteko unean, 1. hizkuntz eskakizuna edo goragokoren bat aurrez egiaztatua duten hautagaiak horren egiaztatzea aurkeztu beharko dute, eta hala izanez gero, euskararen azterketa egin behar izatetik salbuetsita geratuko dira.

Hizkuntz eskakizunak ziurtatzeko jarraian aipatzen diren euskararen ziurtagiri edo titulu hauek aurkeztu ahal izango dira (dokumentu horiek konpultsatuta egon behar dute edo jatorrizkoa kopiarekin batera aurkeztu, Uliazpik erkatu ahal izan ditzan):

— 4. hizkuntz eskakizunerako:

* 4. hizkuntz eskakizuna duela egiaztatuz Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria.

— 3. hizkuntz eskakizunerako:

* 3. hizkuntz eskakizuna edo goragokoren bat duela egiaztatuz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria.

* Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eta ziurtagiri edo diploma baliokideak (besteak beste, Labayru Institutuak ematen duen ziurtagiria).

* Hizkuntza Eskola Ofizialaren Gaitasun maila adierazten duen ziurtagiria.

* Irakaskuntza sektoreko 2. hizkuntz eskakizuna duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

— 2. hizkuntz eskakizunerako:

* 2. hizkuntz eskakizuna edo goragokoren bat duela egiaztatuz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, eta ziurtagiri baliokideak.

* Hizkuntza Eskola Ofizialeko 4. maila gainditu izana.

* Irakaskuntza sektoreko 1. hizkuntz eskakizuna duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

— 1. hizkuntz eskakizunerako:

* 1. hizkuntz eskakizuna edo goragokoren bat duela egiaztatuz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako ziurtagiria, eta ziurtagiri baliokideak. Nahitaezkoa da 1. hizkuntz eskakizunaren ziurtagiria indarrean egotea euskarako frogak egiten diren datan.

Lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizunaren, hots, lehenengo horren jabe dela dokumentu bidez ziurtatu ezean, hizkuntz eskakizun hori ziurtatzeko ariketak prozeduraren fase bat gehiago izango dira.

Hizkuntz eskakizunen ziurtagiriak merezimendutzat hartuko dira. Ziurtatutako hizkuntz eskakizunaren edo ariketa hauen bidez ziurtatutakoaren arabera, honako puntuazioa emango da:

— 1. hizkuntz eskakizuna edo handiagoa: 8 puntu.

4. Zaintzailearen Lan Poltsaren barruan sartu aurretik, eta 3. Oinarriaren e) letran adierazitako baldintza betetzen duela egiaztatzeari begira, azterketa mediko eta psikologiko bat egin eta gainditu beharko da, eta gaitasun-ariketa egin duten hautagaiak eta Oinarri honen 3. apartatuaren b) letran adierazitako kolektibotik datozenak ere hori egitera deituak izango dira. Oinarri honen 3. apartatuaren a) letran deskribatutako kolektibotik datozenek azterketa horren parte psikologikoa egingo dute.

5. Amaierako puntuazioaren hurrenkera, beraz, honako puntu hauek batu ondoren osaturik geldituko da:

— «Curriculum Vitae»: 34 puntu.

— Gaitasun tekniko-profesionalaren balioespenerako galdetegia: 58 puntu.

— Euskara: 8 puntu.

6. oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik hogeit hamar eguneko epean aurkeztu diren eskabideak Oinarri honetan ezarritako baremoarekin bat etorritik ebaluatuko dira. Gerora aurkeztu direnak ikasturtea amaitzean edo praktika akademikoak amaitzean balioetsiko dira, kasuan kasuan eta baremo beraren arabera.

Hurrengo urteko deialdietan gaitasun-ariketa (ikastaro teoriko-praktikoa) edo horiei dagozkien praktika akademiko ofizialak egiten dituzten pertsonak Lan Poltsan sartuko dira apartatu guztietan erdietsi duten puntuazioaren arabera dagoen tokian; gaitasun-ariketari dagokiona horretarako ezarritako eginkizunaren ebaluazio-galdetegiaren bidez erdietsiko da.

7. Hautagai bakoitzaren balioespina edo ebaluazioa Uliazpiko organo eskudunak finkatzen duen maiztasunarekin berrikusiko da. Horrela, denak lehen unean ebaluatuko dira, dela deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, dela aurreikusitako ikastaroa edo horren praktika akademikoak –gero aurkeztu baldin badira– amaitzen direnean. Eta finkatzen den maiztasunarekin berrikusiko dira ebaluazio horiek. Esperientzia, heziketa eta abarrekin loturik balioespina egin ondoren sortzen diren egoera berriak ez dira kontuan hartuko, apartatu horietan gehienezko puntuazio-mugarara iritsi ez diren Lan Poltsako hautagaiak izan ezean.

8. Lan Poltsaren lehentasun-hurrenkera, hemen adierazitakoaren mende ez ezik, Uliazpin indarrean dauden «Zaintzailearen Lan Poltsaren Kudeaketa Irizpideen» mende ere egongo da.

8. Hautapen-prozesuan parte hartzeko baldintzak, balioetsi beharreko merezimenduak eta gaitasun tekniko-profesionalaren probatik eta euskararen probatik salbuetsita egoteko arrazoiak egiaztatzea.

8.1. Hautagai guztiek, eskabidearekin batera, prozesu honetan parte hartzeko 3. Oinarrian zehazten diren baldintzak betetzen dituztela frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

| <i>3. Oinarriko Baldintza Apartatua</i> | <i>Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko egiaztagiria</i> |
|--|---|
| a) Nazionalitatea | N.A.N.aren fotokopia |
| b) Adina | N.A.N.aren fotokopia |
| c) Titulazio akademikoa | Jatorrizkoa edo kopia konpultsatua, edo jatorrizkoa eta kopia, Uliazpiren Zerbitzu Zentraletan erkatzeko. |
| d) Gidatzeko baimena | B motako gida-baimenaren fotokopia. |
| e) Gaitasun funtzionala | Azterketa hau praktika eta heziketa aldian burutuko da. |
| f) Inongo Herri Admin.tatik baztertuta ez izatea eta gaitasungabetuta ere ez egotea. | Zinpeko aitortpena, eskabidearekin batera jaso dezaketen inprimakian |

Documentación a acompañar a la instancia:

| <i>Requisito Base 3ª Apartado</i> | <i>Documentos acreditativos a aportar con la instancia</i> |
|--|---|
| a) Nacionalidad | Fotocopia D.N.I. |
| b) Edad | Fotocopia D.N.I. |
| c) Titulación académica | Original o copia compulsada u original y copia para su cotejo en los Servicios Centrales de Uliazpi |
| d) Permiso de conducir | Fotocopia Permiso de Conducir clase B |
| e) Capacidad funcional | Este reconocimiento se llevará cabo durante el período de prácticas y formación |
| f) No haber sido separado de ninguna Admón. Pública ni hallarse inhabilitado | Declaración jurada en el modelo que podrán retirar junto con la instancia |

8.2. 7. Oinarriko 1. Lehen apartatuan aipatzen diren merezimenduak balioetsiko ditu Batzordeak, dagozkion kalifikazioak emanez, betiere dagozkion inprimakian alegatu baldin badira, Oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta eskabidea aurkezteko unean behar bezala egiaztatu badira, jarraian aipatzen den moduan:

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

| <i>7. Oinarriko merezimendua apartatua</i> | <i>Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko egiaztagiria</i> |
|---|---|
| a) 2. Oinarrian zehaztutako eginkizunetan erakunde publiko nahiz pribatuetan Esperientzia Profesional frogatua, betiere Uliazpin artatzen diren pertsonen antzeko ezaugarriak dituztenei arreta egitea baldin bada erakunde horien xedea. | — Esperientzia hori <u>erakunde pribatu batean</u> izan baldin bada, I.N.S.S.ek egindako egiaztagirien eta enpresako ziurtagirien bidez frogatuko da, burututako eginkizunak edo kategoria adierazten dituztela, edo behar bezala justifikatuta dauden beste agiri batzuen bidez (esaterako: kategoria profesionala aipatzen duen kontratua), Batzordearen iritziz baliozkoak direnean. — Esperientzia hori <u>Administrazio Publiko batean</u> izan bada, aski izango da hark egindako ziurtagiria aurkeztea (denbora eta eginkizunak adierazita dituela). — Uliazpin izan baldin bada, aski izango da eskabidean horrelaxe alegatzea. |
| b) Praktika akademikoak | — Dagozkion Zentro Akademikoak egindako ziurtagiria (Bigarren probatik salbuetsita geratzeko ere balioko du) |
| c) Elikagaien manipulazialearen agiria | — Fotokopia konpultsatua, edo jatorrizkoa eta kopia, biak erkatzeko. |
| d) Prestakuntza | — Titulua edo programa, data eta ordu kopurua gutxienez |

| | |
|--|---|
| | adierazita dituen ziurtagiria (datu hau ezinbestekoa da egoki balioesteko; ez bada ageri, gutxieneko puntuazioarekin balioetsiko da). |
|--|---|

Documentación a acompañar a la instancia:

| <i>Mérito Base 7ª apartado</i> | <i>Documentos acreditativos a aportar con la instancia</i> |
|---|--|
| a) Experiencia Profesional acreditada en las funciones detalladas en la Base 2.ª en entidades públicas o privadas cuyo fin sea la atención de personas con iguales características que las que son atendidas en Uliazpi | — Si la experiencia ha sido en una <u>entidad privada</u> se acreditará con justificantes expedidos por el I.N.S.S. más los correspondientes certificados de empresa que indiquen la categoría o funciones desarrolladas, u otros documentos debidamente justificados (p.ej.: contrato con indicación de la categoría profesional) que tengan validez a juicio de la Comisión. — Si la experiencia ha sido en alguna <u>Administración Pública</u> será suficiente la presentación de certificado expedido por la misma (con indicación de tiempo y funciones). — Si ha sido en <u>Uliazpi</u> bastará su alegación en la instancia. |
| b) Prácticas académicas | — Certificado expedido por el Centro Académico correspondiente (también servirá para la exoneración de la Segunda prueba) |
| c) Carné de manipulador de alimentos | — Fotocopia compulsada, u original y copia para su cotejo |
| d) Formación | — Certificado con indicación, al menos, de título o programa, fecha y número de horas (este dato es imprescindible para su adecuada valoración; si no figurara se valorará, en su caso, con la puntuación mínima) |

8.3. Batzordeak 7. Oinarriaren 1.2 apartatuan deskribatutako gaitasun tekniko-profesionalaren ariketa egin behar izatetik salbuetsiko ditu 7. Oinarri horren 2. apartatuan zehaztutako egoeraren batean aurkitzen diren pertsonak, betiere ondorengo era hauetakoren baten bidez frogatzen badute:

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

| <i>7. Oinarriko 2. apartatuko egoera Letra</i> | <i>Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko egiaztagiriak</i> |
|--|--|
| a) Uliazpin Zaintzaile gisa esperientzia profesionala dutenak | Eskabidean alegatuz (ez da beharrezkoa izango inolako agiririk aurkeztea, Uliazpik ofizioz egiaztatuko baitu hori) |
| b) Uliazpin egin dituzten ikasketa akademiko ofizialei dagozkien praktika akademikoak egin dituztenak (ikasketa horiek nolabait ere adimen-urritasunaren eremuarekin loturik baldin badaude, eta betiere 7. Oinarriko 2.b apartatuan ezarritakoaren kaltetan izan gabe). | Dagokion Zentro Akademikoak egindako ziurtagiria |
| c) Kutxazabalek eta Uliazpik 2005. urtean Adimen-urritasuna duten Pertsonen Zaintzailearentzat eskaini duten ikastaro berezia egin eta gainditu dutenak. | Kutxazabal-Uliazpik emandako diploma edo ziurtagiria |

Documentación a acompañar a la instancia:

| <i>Situación base 7ª apartado 2 Letra</i> | <i>Documentos acreditativos a aportar con la instancia</i> |
|--|--|
| a) Tengan experiencia profesional como Cuidador en Uliazpi | Alegándolo en la instancia (no será necesario acompañar ningún documento, siendo comprobado de oficio por Uliazpi) |
| b) Hayan realizado las prácticas académicas, correspondientes a los estudios que hayan cursado, en | Certificado expedido por el Centro Académico correspondiente |

| | |
|--|---|
| Uliazpi (siempre y cuando esos estudios estén relacionados de alguna forma con el campo de la discapacidad intelectual y sin perjuicio de lo establecido en el apartado 2.b de la Base 7ª) | |
| c) Hayan realizado, superándolo, el curso específico de Cuidador de Personas con Discapacidad impartido por Kutxazabal y Uliazpi en el año 2005. | Diploma o certificado otorgado por Kutxazabal-Uliazpi |

8.3. Batzordeak 7. Oinarriaren 1.3 apartatuan deskribatutako euskararen ariketa egin behar izatetik salbuetsiko ditu 7. Oinarri horren 3. apartatuan zehaztutako ziurtagiri edo Euskarako tituluren bat dutela egiaztatzen duten pertsonak, zuzenean puntuaziorik handiena emanez, betiere eskabidearekin batera aurkezten baldin badute.

8.4. Beren fotokopiarekin batera aurkezten ez diren agiriak ez dira erkaketarako onartuko.

9. Onartuen zerrenda.

Hautagai bakoitzaren amaierako kalifikazioa 7. Oinarrian erdietsitako puntuazioen baturak osatuko du, jarraian aipatzen den moduan.

Balorazio Batzordeak, Uliazpiren Zerbitzu Zentraletako Iragarkien Taulan, baita bere web gunean ere, erdietsitako puntuazio-hurrenkeraren arabera onartutako hautagaien zerrenda argitaratuko du.

Denboragatik eta bitartekoengatik, Bigarren ariketa egitea zailtasun handikoa dela kontuan izanik, onartutako hautagai guztiek egiten ez duten bitartean Lan Poltsatzat horiek guztiek osatzen dutena erabiliko da, eta lehentasun-hurrenkera 7. Oinarriko gainerako apartatuetakoa puntuazioen baturatik ateratakoa izango da, baita Oinarri horretan aipatzen diren irizpideetatik ateratakoa ere.

10. Kontratazioa.

Aurrez erabakitako aldi baterako lan-poltsak eta aurreko Lan Eskaintza Publikoetatik eratorriko zerrendak baino lehentasun handiagoa izango dute zerrenda hauek, eta beste zerrenda horiek, berriz, prozesu honetako zerrenden osagarriak izango dira.

Deialdi honi dagokion kategoriaren lanpostuetan sortzen diren aldi baterako langile-premiak ikusita, Uliazpiko organo eskudunak, 7. Oinarrian aipatutako gaitasun tekniko-profesionalaren ariketa gainditu edo hori egin behar izatetik salbue-tsita egonik bete beharreko lanpostuaren baldintza bereziak betetzen dituzten hautagaiak kontratatuko ditu aldi baterako, Lanpostuen Zerrendan ezarrita dagoenari jarraiki.

Lan Poltsan sartuta daudenen prestatutasuna lehenesteko printzipioan oinarrituta egongo diren indarreko «Zain-tzailearen Lan Poltsa Kudeatzeko Irizpideak» kontuan izanik zehaztuko da Lan Poltsaren funtzionamendua.

Uliazpik beretzat gordetzen du, bertako teknikarien iritziz eta eskainitako lanaren araberrako arrazoietan oinarriturik (eginkizunaren ebaluazioa berrikusiko da), kategoria horrek berezkoak dituen eginkizunak betetzeko egoki ez direnak berriro ez kontratatzeke eskubidea.

11. Deialdiak eta jakinarazpenak.

Balioespen Batzordearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Uliazpiren Zerbitzu Zentralen Iragarki Taulan eta Uliazpiren Zentroek dituztenetan, baita www.uliazpi.net web gunean ere, argitaratuko dira.

7. oinarriaren 1.2 apartatuan aipatutako gaitasun tekniko-profesionalaren ariketa egiteko deialdia banaka-banaka egingo da, telefono bidez. Harremanetarako telefono-zenbaki bat ez emateak edo telefono horretan ez topatzeak ariketa horretarako ez deitzea edo gero ez kontratatzea eragin dezake.

Alderdi teorikoa modu kolektiboan egingo da, baina ez ordea alderdi praktikoa, Oinarri hauetan zehaztu den moduan deituko baitzaie.

12. Gorabeherak.

Balioespen Batzordeak ahalmena du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta hautapen-prozesua behar bezala gara-zeko behar diren erabakiak hartzeko, Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden gauza guztietan.

Deialdiari, bere oinarriari eta horietatik eta Balioespen Batzordearen jardunbidetik ondorioztatzen diren beste hainbat administrazio-ekintzari aurka egin ahal izango zaie Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako epe eta moduetan.